



ÁMBITO IBÉRICO

6.1. Pello Añorga eta Jokin Mitxelena *Gerlari Handia*-ren txikitasuna edo ni neu naiz neure etsairik handiena²⁰

Mikel Ayerbe
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

Laburpena: Euskal literatura sistemako haur eta gazte literatura garaikidearen baitan album ilustratuen gabezia nabarmena salatu eta genero horren bilakaera aztertu ondoren, I. Etxepare Bekari esker argitaratutako Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaren *Gerlari Handia* albumaren forma eta edukiaren nondik norakoen gaineko analisisia aurkeztuko da artikulu honetan.

Giltza-hitzak: album ilustratua, haur eta gazte literatura, literatur kritika.

20. Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduriko EHU10/11 Ikerketa Proiektuan kokatzen da.

Abstract: Once the presence and development of the picture books genre in contemporary children and young adults' Basque literature were considered, this article exposes an analysis of the structure and content of the album *Gerlari Handia* [The Great Warrior], by Pello Añorga and Jokin Mitxelena, which was awarded with the I Etxepare Award for Picture Books.

Keywords: children and young adults' literature, literary criticism, picture book.

Album ilustratuaren bilakaera euskal literaturan

Euskal literaturaren baitan, benetan urria da euskaraz sorturiko albumen kopurua. Arrazoi nagusien artean merkatuaren eta euskarazko irakurleen mugak, albumaren generoak berezko dituen emaitza estetikoak preziatzeko ohitura falta edo publikazio hauek suposatzen duten gastuei aurre egiteko argitaletxeek ez arriskatzeko duten politika izanik ere —edo hain zuzen, aipaturiko arrazoi guztiek bat egitea euskal literaturak osatzen duen sistema txiki batean—, kontua da euskaraz produzitzen diren albumen kopurua oso murrizta dela. Sistemaren gabezia nabarmen bat adierazten duen gertakaria inondik ere, kontuan izanik “literaturari haur literaturak egin dion ekarpen bakarra albumarena izan dela” (Hunt, 2001: 288).

Euskal haur eta gazte literaturaren historia hurbilari atzera begiratze labur bat eginez gero, 80ko hamarkadan izan ziren genero jakin horretan eginiko hainbat saiakera interesgarri, Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren arteko elkarlanak edo Ereineko “Ziripot” saileko aleak kasu. Baina salbuespenak salbuespen, albumak baino gehiago irudigintzak garrantzia hartu arren folkloreaki eta ahozko tradizioari loturiko lanak nagusitu zirela jabetuko gara eta zoritxarrez, kalitatezko lanek oihartzun eta ibilbide oso laburra izan zutela. Bestalde, argitaletxeen sistema egonkortu ostean, orduan kaleratuko dira beste argitaletxe batzuekin elkarlanean atzerriko obren zen-

bait itzulpen ere. Aldiz, 90ko hamarkadaren amaieran eta mende berriaren atarian bereziki, albumak bestelako bilakaera bat izango du: “azken bizpahiru urteotan, aurrerapausu handiak eman dira euskarazko albumetan, bai hemen sortutakoen artean, bai erdaratik euskaratutakoenetan” (Lopez Gaseni & Etxaniz Erle, 2005: 93). *Berpizte* hitzaz baliatzen dira ikerlariak albumaren egonkortze prozesuaren berri emateko eta prozesu horren baitan, hainbat argitaletzek (besteak beste, Erein, Aizkorri eta Tarttalo) bilduma jakinen alde eginiko apustua, berrargitalpenen ugaritzea edo beste hizkuntzetako argitaletxeekin egindako elkarlana nabarmentzen dute.

Egun, atzerriko albumen harreraz aritzean eta Tarttalo, Alberdania edo Ikas pedagogia zerbitzua bezalako argitaletxeek albumak itzultzeko apustu propioari heltzen badiote ere, ko-edizioaren bideak emaitza oso interesgarriak eman ditu euskarazko haur eta gazte literaturan. Aurrekari gisa, Kalandraka eta Pamiela argitaletxeen arteko hitzarmenak bide berriak ireki zituen. Horri esker 1999 urteaz geroztik jadanik klasiko bihurtu diren atzerriko album ilustratu kanonikoen itzulpenak argitaratu dira euskaraz, hala nola, Sendak, Janosch, Lobel, Ungerer eta abarren lanak. Bide beretik, berriki OQO eta Txalaparta argitaletxearen arteko ko-edizio akordioaren ondorioz, 2009tik hona euskaraz kaleratu dira aurrez galiziar argitaletzeko “O” bilduman argia ikusi duten lanak. Album hauen ezaugarri nagusia sorkuntza berriko lanak izatea da eta beraz, idazle zein ilustratzaile berrien aldeko apustua nabari daiteke. Ko-edizioen artean bitxikeria gisa, aurrena Kataluniako Takatuka argitaletxean argitaratu zen Koldo Izagirre eta Antton Olariagaren *Zango zikin* (Igela, 2009) genuke, ondoren itzulpenetan oinarrituriko Igela argitaletxean ikusi baitzuen argia.

Esan bezala, euskaraz sorturiko egungo albumen ekoizpenak age-riko gabezia salatzen du²¹, nahiz eta gutxika-gutxika albumaren mu-

21. Euskal haur eta gazte literatura sistemako gabezia gehiagoz jabetzeko, ikus Manu Lopez Gaseniren *Literaturak umeei begiratu zienean*, Pamiela, Iruñea, 2005 laneko “Euskaratutako literatura, edo protagonistak urrunekoak direnean” atala. Izan ere, bertan salatzen den itzulpenen auzia garai bateko euskal haur eta gazte

gan kokatzen den Igerabide & Mikel Valverderen *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) edo Amaia Hennebutte-ren *Otsoa, axeria eta ahuntzak* (Ikas, 2009) album aipagarria bezalako lanak izan diren. Ahulezia hortaz jabetu eta euskarazko albumen hutsuneari aurre egiteko, albumen sorkuntza sustatzeko antolaturiko lehiaketa, beka eta sariak genituzke: Peru Abarka lehiaketa eta Etxepare sariak, hain zuzen. Markina-Xemeingo Udal Euskara Zerbitzuak eta Herri Bibliotekak Gero-Mensajero argitaletxearekin batera 2005. urtean sortu zuen Peru Abarka album lehiaketaren helburua euskal literatur produkzioan formatu berritzaileak sustatzea da, album formatua jorratuz baina genero hau bereziki hartzaile helduei zuzenduz. Lehiaketa horri esker kaleraturiko albumen artean 2006ko Yolanda Larreategi eta Elena Odriozolaren *Zaharrak berri, euriak* nabarmendu behar. Bestalde, Peru Abarkak irekitako bideari jarraiki, Gero-Mensajerok “Abarka” sailaren baitan euskaraz sorturiko gazte zein helduentzako albumak kaleratu eta Miren Agur Meabe eta Eider Eibarren *Mila magnolia lore* (2010) bezalako lan txalogarriak argitaratu ditu. Dena den, haurrentzako album ilustratuen euskarazko sorkuntza sustatzeko beka eta sarien artean, Etxepare saria azpimarratu behar da. Nahiz eta Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuek antolaturiko saria 2004an sortu zen eta haur, gazte edo helduentzako literatura lanak saritu zituen hasierako bi edizioetan, 2006tik aurrera haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen eta aurreneko edizioetan aurkezturiko lanen kalitatea ikusi ondoren, 2009az geroztik Etxepare beka izatetik sari izatera pasa da. Gainera, Pamiela eta Factoria K de libros-en elkarlanari esker, sarituriko lanak euskaraz gain, galegoz eta gazteleraz ere argitaratzen dira. Hain zuzen, 2007ko I. Etxepare Bekarekin saritua izan zen hizpide dugun *Gerlari Handia*.

literaturaren sorkuntza orokorrera mugatzen bada ere, egun albumekin antzeko fenomeno bat errepikatzen ari ez ote den susmoa dut.

Pello Añorga eta Jokin Mitxelena: eskarmentudun bikote saritua

Pello Añorga (Oiartzun, Gipuzkoa, 1956) Donostiako Irakasle eskolan ikasi eta 1976tik 1986ra arte irakasle lanetan aritu ostean, ipuin-kontalaritzan murgilduko da bete-betean. Haur eta gazte literaturarekin loturiko hainbat ekimenetan parte-hartze zuzena izan du, hala nola, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI-ko Haur Liburu Mintegia edo Galtzagorri haur eta gazte literatura elkartearen sorreran. Idazle modura, haur literatura landu du eta 1983an argitaratu zuen aurreneko lana, *Hola hala behin* (Erein). Ordutik, hogeita hamabost lan baino gehiago kaleratu ditu, besteak beste *Pottoko* (Elkar, 1984), *Arrain gorria* (Pamiela, 1996) eta *Zaintxo* (Erein, 2009), gutxi batzuk aipatzearren. 2008an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi saria irabazi zuen Jokin Mitxelenak ilustraturiko *Jenio gaiztoa* (Aizkorri, 2007) lanarekin. Era berean, kaleratu dituen liburu gehienetako ilustrazioak Mitxelenak egin ditu.

Jokin Mitxelenak (Donostia, Gipuzkoa, 1962) Arte Ederrak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta 1995. urtera arte irakas-kuntzan eta haur eta gazte literaturako liburuak eta testu liburuak ilustratzen egin du lan. Aipatu urtetik aurrera Alemanian bizi da eta ilustraziogintzan bakarrik dihardu. Ilustraturiko euskal liburuen artean ehunetik gora ale ilustratu ditu, asko eta asko Pello Añorgarekin elkarlanean sorturikoak, eta erdarazko hainbat lan aipagarri ere ilustratu ditu. Hain zuzen, Añorgak idatziriko *Ipuin-kontalariaren lapikoa* lanarekin 2010eko Ilustrazio Euskadi saria eskuratu du.

Gerlari Handia-ren txikitasuna edo ni neu naiz neure etsairik handiena

Esan bezala, Añorga eta Mitxelenaren *Gerlari Handia* lanak haurerentzako album ilustratuak sortzeko I. Etxepare Beka eskuratu zuen. Argumentua dela eta, gerra guztiak irabazten dituen Gerlari Handi izugarri eta garaiezina, elurretatik babesteko, zaldi zuritik

jaitsi eta haitzulo ilun batean babesten da. Itxura ikaragarria du urrekoloreko armadura eta ezpata zorrotza gainean dituela. Sua piztu eta bat-batean, itzal bat atzematen du zelatan eta gero eta handiago den itzalarekin borrokan hasten da. Borroka gogorregia da, ordea, eta azkenean, gehiago ezin duela, bere armadura jaurtitzen dio itzalari. Gerlari Handiaren txikitasuna azaleratzen da biluzik gelditzen denean, eta haitzulotik irten ostean, eguzkiaren argiari esker jabetuko da bere itzalarekin aritu dela borroka bizian.

Albumeko testuaren irakurketan murgilduz, hitzen eta esapideen aukeraketa zehatzak Gerlari Handiaren hantuste eta harrokeria ematen ditu aditzera hasieran, itzalari oldartuz “Oraitxe ikusiko duk, etsai malapartatua halakoa!” (14) dionean kasu. Amaieran, aldiz, bestelako erregistro bat gailenduko da bere itzalarekin borrokan egin duela jabetu ostean, hala nola, “Ja, ja, ja! Ni neu naiz neure etsairik handiena, ja, ja, ja! Txoriburua halakoa! Astaputza!” (24). Irakurketa planoetako dagokionez, Laura Sagastumeren kritikak honakoa dio, hain zuzen, “irakurketa asko eskaini ditzakeela, hainbesteraino non komedia edo drama moduan irakur daitekeen”. Komedia, azkenean dena gaizki-ulertu txoro bat besterik ez delako; baina drama ere bai, era berean, beldurra, gorrotoa eta harrokeria bezalako etsai handienak norberaren bere buruan sortzen direlako, eta sarriegitan, berabei aurre egitea delako, Gerlari Handiaren kasuan bezala, gizakiaren gatxkarik zailena. Hori horrela, gerlariaren figura denbora eta espazioaren mugak gainditzen dituen alegoria gisa ere uler daiteke, hain zuzen, ahozko tradizioaren zordun den kontakizun unibertsal baten kutsuan. Bestalde, haitzuloaren eta argi-itzalen kontuak Platonen *Haitzuloko mitoaren* oihartzunak dituela ere nabarmendu du aipatu kritikariak.

Ilustrazioei erreparatuz, Mitxelenaren irudiak deigarriak dira inondik ere. Ilustratzaileak ohiko duen estilo koloretsuari muzin eginaz, *Gerlari Handia* albumean elurraren zuriari kontrajartzen zaizkion armaduraren horia eta lerroen trazu zabar beltzak nagusitzen dira. Era berean, esanguratsua da irudien bidez ere nola islatzen diren albumaren dramatikotasun eta komikotasun erregistroak: hasie-

rako gerlari garaiezinaren dimentsio erraldoiaren eta armadura galdu ondorengo gerlari biluziaren arteko bilakaeraren konparaketak aditzera ematen duen bezala. Itzelezko itzalak duen zirriborro itxurak ere bere baitan biltzen ditu aurrez aipatu diren etsaiaren askotariko adierak, mamu beltz beldurgarri gisa aurkezten den neurrian. Lehen ilustrazioetako elurraren giro mehatxagarria ere atzean uzten da, amaieran eguzkiaren beroak elurra urtu ondoren erakutsiko duen paisaiarekin, nolabait gerlariaren barne gatazka eta borroka ondorengo barealdiaren adierazle bihurtuz. Perspektiba jokoak ere aipagarriak dira.



Izan ere, testuaren eta irudien harreman estuak “hainbat interpretazio bide ahalbidetzen dituen esanahi maila sortzen ditu” (Arizpe & Styles, 2003: 48). Zerrendaturiko elementu gutxiaren konbinaketa bikainari esker hori bera lortzen duen album erabat interesgarria ehundu dute Añorgak eta Mitxelenak *Gerlari Handia* lanean, irakurketa plano askotarikoekin batera ilustrazio adierazpide propioak es-

kainiz. Hain zuzen, liburuaren aurkezpeneko Añorgaren hitzekin amaituz: “Ilustrazioak harantzago eramán behar du testua, ez dago testuaren mendean. Testuak, era berean, honuntzago ekarri behar du marrazkia. Biak banaezinak direnean, orduan da albuma”.



Aipaturiko bibliografia

- Añorga**, Pello & Jokin **Mitxelena** (2007), *Gerlari handia*, Iruñea: Pamiela.
- Arizpe**, Evelyn & Morag **Styles** (2004), *Lectura de imágenes. Los niños interpretan textos visuales*, México, D.F.: Fondo de Cultura Económica.
- Hunt**, Peter (2001), *Children's Literature*, Oxford: Blackwell.
- Lopez Gaseni**, Manu & Xabier **Etxaniz Erle** (2005), *90eko hamarkadako euskal haur eta gazte literatura*, Iruñea: Pamiela.
— (2005), *Literaturak umeei begiratu zienean*, Iruñea: Pamiela.
- Sagastume**, Laura (2008), “Gerraren arrazoiak”, in *Behinola aldi-zkaria*, 17. zenb, Pamiela, Iruña, maiatza.